

LEHEN HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA

# Nafarroako Parlamentua

Lan-irtenaldia

*José Ignacio Juanbeltz Martínez / Rubén Riancho Andrés*



PARLAMENTO DE NAVARRA  
NAFARROAKO PARLAMENTUA



« DEMOKRÀZIA DA  
GOBERNU-SISTEMA BAT  
NON NORBAITEK ATEA  
JOTZEN BADU GOIZEKO  
SEIETAN BADARIZUN  
ESNE-SALTZAILEA DELA »

WINSTON CHURCHILL  
ERRESUMA BATUKO LEHEN MINISTROA (1940-45, 1951-55)

**Izenburua** Nafarroako Parlamentua. Lan-irtenaldia  
Lehen Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa

**Egileak** José Ignacio Juanbeltz Martínez eta Rubén Riancho Andrés

**Itzulpena** Ander Arana Bareño, Xabier Aristegieta Okiñena, Ainhoa Irazustabarrena Barriola,  
Mikel Iriarte Zilbeti eta Ander Irizar Apaolaza

**Argitalpena** Nafarroako Parlamentua,  
Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin

**Diseinua** KEN

# Aurkibidea

Irtenaldia baino lehen **7**

Irtenaldiko jarduerak **13**

Kokapena **14**

Batzorde-aretoa **18**

Osoko Bilkuren aretoa **20**

Parlamentua iruditan **22**

Elkarrizketa **25**

Parlamentua komunikabideetan **26**

Nire oharrak. Parlamentuko anekdotak **29**

Lan-irtenaldiari buruzko iritzi orokorra **30**

Gutxieneko Ibilbidea **31**

Nork osatzen du Parlamentua? **33**

Nafarroako Parlamentuak nola egiten du lege bat? **37**

Nork kontrolatzen du boterea Nafarroako Parlamentuan? **39**

Sintesia **42**

Ebaluazioa. Koebaluazioa **43**



IRTENALDIA  
BAINO LENEN

## Zer ikasiko dugu?

Nafarroako Parlamenturako Lan-irtenaldiak honako hauetarako aukera emanen dizu:

- Parlamentuak Iruñean duen kokalekua eta haren ingurunea ezagutzeko.
- Zure ikastetxetik Parlamenturaino iritsi arte egiten duzun ibilbidean zehar kokaturiko zenbait jakingarri identifikatzeko (hala nola herriak, mendiak, ibaiak, kaleak, plazak, eraikinak... betiere, abiatzen zareneko tokiaren arabera).
- Parlamentuko egoitzako aretoetatik ibiltzeko, eta aipagarrienak identifikatzeko (Osoko Bilkuren aretoa, batzorde-aretoak, prentsa-aretoa...). Helburua da zuk parlamentarien eginkizunak beren lantokian kokatzea, beren jardueretan erabiltzen dituzten elementuak eta lanabesak ikusiz.

Emanen zaizkizun azalpenetatik informazioa bildu behar duzu. Gainera, nahi duzuna galde dezakezu. Baina ez ahaztu arretaz, arduraz eta begirunez jokatu behar duzula, autobusean, kalean eta Parlamentuan ikusten dituzun pertsonekin edo gauzekin.

## Nola egingen dugu?

### Bisita baino lehenago

Egitera zoazten ariketen helburua da taldean lantzea Parlamentuan ikusiko dituzuen pertsonen egin beharreko galderak, eta mapa batean adieraztea Parlamenturaino egingen duzun ibilbidea.

Galderei dagokienez, gogoan izan ikasiko dugula non dagoen Nafarroako Parlamentua, noiztik, nork osatzen duen, zertarako balio duen (hau da, zer eginkizun dituen), nola egiten duten lan parlamentariak, zer problemarekin egiten duten topo eta abar. Galderak guztion artean presta ditzakezue klasean, horrela zerrenda aski luzea egin ahal izateko. Ez ahaztu ezen, galdera orokorrekin batera, komenigarria dela zehatzagoak diren beste batzuk ere egitea, parlamentarien berei buruzkoak (baten bati elkarrizketa eginez gero), edo Parlamentuan lan egiten duten pertsonen buruzkoak (gidaria, polizia, gelazainak...). Eska itzazue eskuorriak eta planoak, eta ulertzen ez duzuen edozein buruz lasai galde ezazue.

Parlamentuaren kokalekuari eta bere osaerari buruzko ariketak egiteko, informazioa daukazue dossierrean.

### Bisitari zehar

Ibilbidean zehar, taldeak ikusi eta identifikatu egingen dituzten mapetan adierazi dituzten jakingarriak. Horrez gain, taldeak Parlamentutik hurbil dauden kale aipagarri batzuk eta inguruetako eraikin nagusiak identifikatu dituzte. Iruñeko planoak erabiliko dugu.

Jarraian, honakoetarako lanak gure artean banatuko ditugu:



- Osoko Bilkuren aretoaren krokisa marraztea, elementu nagusien aipamena ere eginez.
- Batzorde-areto baten krokisa marraztea, elementu nagusien aipamena ere eginez.
- Parlamentuko zenbait elementu garrantzitsu identifikatzea eta haien zeregina jakitea.
- Baimena ematen badigute, argazkiak hartuko ditugu, bai orokorrak, bai xehetasun batzuenak. Argazki horiek krokisen baten ordezt erabil daitezke, baina ez guztien ordezt.
- Klasean landu ditugun galderak egin eta erantzunak idatzi.

### Bisita eta gero

Parlamenturako bisitari eta erakunde horren azterketari buruzko dossier bat egingen dugu. Irtenaldia baino lehenago, irtenaldian zehar eta irtenaldiaren ondoren egin ditugun ariketa guztiei izenburua eta zenbakia ipiniko dizkiegu. Dossier bat prestatuko dugu, eta bertan erantsiko ditugu irtenaldian eskuratutako irudiak, edo internetetik hartutakoak.

Irtenaldi honen zer-nolakoak tutoretza-ordu batean aipatuko dira eta, kasuren batean, irakasle eta ikasleen artean adostu ere bai; hots: ordutegia, egin beharreko ariketak, itzulera eta abar.

### **Nola moldatuko gara?**

Bisita eguna: \_\_\_\_\_

Ordutegia. Irteera: \_\_\_\_\_

Itzulera: \_\_\_\_\_

Bestelako alderdiak: \_\_\_\_\_

Baliabideak. Arropa eta oinetakoak: \_\_\_\_\_

Jan-edanak: \_\_\_\_\_

Lanerako materiala:

Karpeta eta orri zuriak. Irtenaldiari buruzko dossierra. Zorro batean, arkatza, boli-grafoa eta hiruzpalau margo. Argazki-makina, grabagailua (hautazkoa).

## Lanari eta jokabideari buruzko arauak

Irakasleen laguntzarekin, klaseko taldean honakoak adostuko ditugu:

- Autobusean izan beharreko jokabidea.
- Kanean izan beharreko jokabidea (ibiltzean, hitz egitean, besteekin topo egitean, objektu, animalia edo landareen aldamentetik pasatzean...).
- Parlamentuan izan beharreko portaera eta lan egiteko modua (gauzak eskatzean «mesedez» hitza erabili, arreta izan, objektu garestirik ez ukitu, zakarrontziak erabili, komunak eta eskaintzen zaigun edozer erabiltzean kontuz ibili).

## Irtenaldiako dokumentuak

Irtenaldiari buruzko dosierra.

Besterik: \_\_\_\_\_

## Lanaren maketa

Parlamentuari buruz egiten dugun dosiererako lana ulertzeko, arretaz entzun irakasleek maketa honetan oinarrituz emanen dituzten azalpenak. Irakaslearekin eta taldearekin adosturik, ariketak aldatu eta haien ordez beste batzuk egin ditzakegu, egokien iruditzen zaizuen moduan.

Azala	0. Zer ikasiko dugu?	1. Kokalekua	2. Batzorde aretoa
3. Osoko Bilkuren aretoa	4. Parlamentua iruditan	5. Elkarrizketa	6. Nire oharrak. Parlamentuko anekdotak

Zure lan-koadernoari hasiera emateko, lehenbizi **azala** eginen duzu. Zure lehenengo egitekoa izanen da. Saia zaitez erakargarria eta originala egiten eta ongi osatuta egon dadin. Baliabide informatikoak erabil itzazu. Maketa honetan ikusiko duzun bezala, honakoak eduki beharko ditu:

**Zure lan-  
koaderno  
nola itxuratu**

- **izenburu** bat.
- **irudi** sendo bat, arreta deituko duena, balio demokratikoekin loturiko gai-  
ren bati buruzkoa (bizikidetasuna, parte-hartzea...).
- **zure datu** guztiak.

# Izenburua

irudia

Izena:  
Arloa:  
Maila:  
Ikastetxea:  
Irakaslea:

### **Azala egin ondoren**

Bigarrenik, beste orri batean, lanarekin lortu nahi dituzun helburuak idatziko dituzu.

Esate baterako:

#### **ZER LANDUKO DUGU?**

Zer ikasiko dut Nafarroako Parlamentuari buruz?

#### **EZ AHAZTU**

Zure irakaslearen laguntzarekin, bisita ezazu Nafarroako Parlamentuaren Ikasgela Birtuala: [www.parlamento-navarra.es/ikasgelabirtuala](http://www.parlamento-navarra.es/ikasgelabirtuala)

- begira ezazu nola funtzionatzen duen.
- zein informazio ematen dizkizun.
- lan on bat egiteko eskaintzen dituen aukerak.

IRTENALDIKO  
JARDUERAK



1. ARIKETA

Kokalekua




## 1. ARIKETA

---

- Argazkian identifika eta koka itzazu honako leku bereizgarri hauek: Gazteluko Plaza, Nafarroako Gobernuko lehendakartzaren egoitza, Foruen Monumentua, Nafarroako Parlamentuaren egoitza, Baluarte, Ziadela, Iruñeko Alde Zaharra.
- Koka itzazu argazkian iparraldea, hegoaldea, ekialdea eta mendebaldea.
- Zer da hiri bat?



1. ARIKETA





## 1. ARIKETA

---

- Planoan adieraz ezazu Parlamenturaino iristeko egin duzun ibilbidea, bai eta bertatik irten ondokoa ere.
- Airetik hartutako argazkia planoarekin alderatuz, aurki itzazu argazkiko eraikin historiko-politiko nagusiak eta, halaber, kaleak.

## 2. ARIKETA

### Batzorde-aretoa



## 2. ARIKETA

---

- Batzorde-aretoko elementu bereizgarriak eta ofizialak adieraz eta izenda itzazu.
- Adieraz ezazu zein diren batzorde aretoan esandakoa komunikatu eta grabatzeko elementu teknikoak.
- Idatz ezazu Nafarroako Parlamentuko batzorde batzuen izena eta azal ezazu zer gairi buruz arduratzen den haietako bakoitza.

### 3. ARIKETA

### Osoko Bilkuren aretoa



### 3. ARIKETA

---

- Adieraz itzazu Osoko Bilkuren aretoko elementu bereizgarri eta ofizialak, eta izenda itzazu.
- Adieraz ezazu zein diren Osoko Bilkuren aretoan esandakoa komunikatu eta grabatzeko elementu teknikoak.
- Idatz ezazu zein tokitan dauden honako hitz hauek adierazten dituzten gauzak:
  - Eserlekuak
  - Parlamentuko Mahaia
  - Parlamentuko lehendakaritzarentzat gordetako tokia
  - Nafarroako Gobernuarentzat gordetako tokia
  - Bozketen emaitzen berri ematen duten panel elektronikoak
  - Mintzatokia

#### 4. ARIKETA

#### Nafarroako Parlamentua, irudietan

---

Nafarroako Parlamentuaren argazkiei (edo marrazkiei, krokisei...) oin-ohar argigarriak ipini. Behar dituzun orri guztiak erabili, eta horietan, honako une hauen berri eman:

- Parlamentura hurbiltzen ari zareteneko
- sarrerara iristen zareteneko
- harrera-ekitaldiarena
- areto bakoitzean sartzen zareteneko
- eta horrela, amaierara arte

Ez ahaztu taldearen eta zure ikaskideen argazkiak ere ipintzeaz, une hauetan ateratakoak: ikaskideak Parlamentuko ekitaldian parte hartzen, oharrak idazten, Iruñean zehar ibiltzen, eta abar.

**4. ARIKETA**

---

#### 4. ARIKETA

---



Nafarroako Parlamentuan lan egiten duen pertsona bati egin beharreko galderen sorta

5. ARIKETA

Elkarrizketaturiko pertsona:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

Galdera:

Erantzuna:

## 6. ARIKETA

### Parlamentua prentsan

---

Azken egun hauetan Parlamentuari buruz prentsan agertutako albisteak egunkarietatik ebaki eta orri batean itsatsi. Horrela osaturiko albistegiari izenburua jarri. Albiste horiei buruzko aipamen labur batzuk egin.

---

**6. ARIKETA**

## 6. ARIKETA

---



## 8. ARIKETA

### Lan-irtenaldiari buruzko iritzi orokorra

---

Irtenaldi honetan, aurretik ez nekien zer ikasi dut?

Harritu egin nauten bitxikeriak.


Parlamentuari buruz daukadan iritzia.

Irtenaldi honetan izan dudan jokabidea eta jarrera.

Zer daukat hobetzekorik?

GUTXIENE KO  
IBILBIDEA

## Zer ikasiko duzu koaderno honetako ariketak egiten dituzunean?



Jarraian aurkezten dira, Nafarroako Parlamentura eginiko lan-irtenaldiarekin batera, lan-ibilbide hau osatzen duten bost ariketak.


Lehenbiziko hiru ariketek balio izanen dizute Nafarroako Parlamentuaren funtzio-namendua analizatzeko.

- Nork osatzen du Nafarroako Parlamentua?
- Nola egiten da foru lege bat?
- Nork kontrolatzen du boterea Nafarroako Parlamentuan?

Beste bi ariketak baliagarriak izanen zaizkizu ikasitakoa sintetizatze eta ebaluatze.

Nafarroako Parlamentuari buruz gehiago jakin nahi baduzu, Ikasgela Birtualean beste aukera batzuk ematen dizkizugu, honako hauekin zerikusia duten informazioak zabal-tzeko eta haietan sakontzeko: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Gorteen historia, Foruak, Foru Hobetzea, Espainiako beste legebiltzar batzuk, Europako Parlamentua eta abar. Lehen Hezkuntzarako Lan-koadernoan aurkituko dituzu.

## Ulertuzko irakurketa, ikertzen ikasteko



Ariketa hauek egiteko, arretaz irakurri beharko duzu testua:

- Azpimarra itzazu ideia nagusiak eta gako-hitzak.
- Gogoan hartu beti izaten dela komenigarria testua 5 edo 6 lerrotan laburtzea.
- Azkenean, erantzun galderari.





Gehienez ere lau urtean behin, Nafarroako Parlamentua berritzeko hauteskundeak deitu eta egiten dira. Nafarroan errolatuta dauden 18 urtetik gorako pertsona guztiek daukate boto-eskubidea. Boto gehien lortu duten 50 hautagaiak dira hautaturikoak.

Edozein pertsona aurkez daiteke foru hauteskundeetara. Nolanahi ere, ia inor ez da bere kabuz aurkezten. Alderdi politiko edo hauteskunde-koalizioetako kide gisa taldekatuta aurkeztu ohi dira. Alderdi politiko bat osatzen duten pertsonak ideia berberak defendatzen dituzte, eta haien jomuga da boterea eskuratzea, ideia horiek gauzatzeko aldera. Hauteskunde-koalizio bat osatzen dute bi alderdik edo gehiagok; alderdi horiek bat egiten dute gobernu-hitzarmen bat dela medio, hauteskundeak irabazteko asmoz.

Nafarrek alderdi bat edo bestea hautatu ahal izan dezaten, eta alderdi haietako bakoitzak zer egin nahi duen jakiteko informazioa eskuratu dezaten, hauteskunde-kanpainak egiten dira. Hauteskunde-kanpainak bizpahiru aste irauten dute, eta denbora horretan hautagaiak herriz herri eta hiriz hiri joan ohi dira, hautatuak izanez gero zer egingen duten adierazteko. Egun horietan zehar, prentsan, irradian, telebistan, interneten, kaleetan eta zenbait lokaletan (bileren edo mitinen bidez) hautagaitza bakoitzari buruzko informazioa eskaintzen da: zer kidek osatzen duten, zer egingen duten... Botoemaileek, horrela, aukera izaten dute hautagaitza ezberdinei buruzko iritziak elkarrekin kontrajartzeko eta, hauteskunde-eguna iritsitakoan, nahi duten hautagaitzaren aldeko botoa emateko.


Botoa emateko, 18 urtetik gorako pertsonak joan behar dute beren etxetik hurbil izen emanda daudeneko hauteslekura, eta alderdi baten eta bere hautagaien izena idatzirik duen boto-txartel bat aukeratu, gutunazal batean sartu eta, azkenik, beren botoa hautestontzi batean sartu behar dute.

## 9. Nork osatzen du Parlamentua?

**Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren aretoa**  
Parlamentarien eserlekuak biribil bat osatuz antolatuta daude. Horrela, aise ikus eta entzun diezaioke elkarri. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak bilkuren zuzendaritza-lana egin eta hitza eman edo kentzen du. Bere aldamean bi lehendakariorde eta bi idazkari esertzen dira. Parlamentari bat Osoko Bilkurari zuzentzen zaionean, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren mahaiaren aurrean kokaturiko mintzatoki batera igotzen da.

## Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-emaitzak

Hautagaitza	1. legegintz. 2. legegintz. 3. legegintz. 4. legegintz. 5. legegintz. 6. legegintz. 7. legegintz. 8. legegintz. 9. legegintz.									
	1979	1983	1987	1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
UCD Unión de Centro Democrático	20									
CDS Centro Democrático y Social			4							
PSN-PSOE Partido Socialista Obrero Español	15	20	15	19	11	11	11	12	9	7
UPN Unión del Pueblo Navarro	13	13	14	20	17	22	23	22	19	15
AP / PP Alianza Popular / Coalición Popular Partido Popular		8	2						4	2
PDF-PDP y PL (UDF) Unión Demócrata Foral			3							
HB / EH Herri Batasuna / Euskal Herritarrok	9	6	7	6	5	8				
CDN Convergencia de Demócratas de Navarra					10	3	4	2	0	
EKA Partido Carlista	1									
EA Eusko Alkartasuna			4	3	2					
UNAI Unión Navarra de Izquierdas	1									
EE Euskadiko Ezkerra			1							
EAJ-PNV Eusko Alderdi Jeltzalea- Partido Nacionalista Vasco		3								
Nacionalistas Vascos	3									
EA-PNV						3	4			
Nafarroa Bai								12	8	
Aralar							4			
IU / IUN-NEB Izquierda Unida / Ezker Batua				2	5	3	4	2		
Izquierda-Ezkerra									3	2
Bildu-Nafarroa									7	
EH Bildu										8
Geroa Bai										9
Podemos										7
Bestelakoak	8									
Guztira	70	50	50	50	50	50	50	50	50	50



Bozketak zenbait baldintza bete behar ditu:

- Askea da: botoa ematen zaio botoa eman nahi zaionari.
- Zuzenekoa da: inork ez du beste inoren izenean botorik ematen, nork bere izenean baizik.
- Isilpekoa da: inork ez daki nori eman diozun botoa, zuk esaten ez baduzu.
- Unibertsala da: 18 urtez gorako herritar guztiek ematen dute botoa.
- Aldizkakoa da: pertsona hautatuak gehienez ere 4 urterako hautatuak dira.

Bozketa bukatzean, hautestontzia ireki eta publikoki zenbatzen dira botoak. Emaitzak Hauteskunde Batzorde bati bidaltzen zaizkio.

Nafarroako Hauteskunde Batzordean biltzen dira Nafarroako hauteskunde-mahai guztietako datuak. Aurkezturiko alderdi edo koalizio bakoitzaren botoak batu, eta azkenean kalkulatu da zenbat eserleku edo parlamentari lortu dituzten. Azkenean, Hauteskunde Batzordeak jakinarazpen bat igortzen die hautagai hautatuei, horrekin Parlamentura joan eta lortu duten parlamentari-izaera frogatzen duen ziurtagiria eskuratu dezaten.

## 9. Ariketak

### 1. Talde txikian:

- Jo ezazu Nafarroako Parlamentuaren webgunera: [www.parlamentodenavarra.es](http://www.parlamentodenavarra.es) (bost hizkuntza aukera ditzakezu). «Osaera eta organoak» atalean klikatu eta kopia ezazu gaur egun Nafarroako Parlamentua osatzen duten parlamentarien zerrenda.

- 
- Orri berean, «Hauteskundeen emaitzak» atalean, lortu azken hauteskundeen emaitzak, eta kopia ezazu dokumentu batean emaitzei buruzko irudia.

- 
- Idatz itzazu azken foru hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politikoen siglak, eta adierazi zer esan nahi duten.

- 
- Parlamentuko orri berean, «Testu instituzionalak» atalean, kontsultatu Foru Hobetzearen 15.2 artikulua zer dioen, eta idatz ezazu. Bertan ezartzen da Nafarroan zenbat foru parlamentari egonen diren.

**10. Nafarroako Parlamentuak nola egiten du lege bat?**

Parlamentarien zereginetako bat legeak egitea da. Lege bat da Nafarroako Parlamentuan aldeko botoa jaso duen arau bat, eta herritar guztiak behartuta daude arau hori betetzera. Legeak, eta oro har arauak, askotariko gaiak antolatzeaz arduratzen dira: ibilgailuen zirkulazioa errazteaz, hezkuntza bermatzeaz, herritar guztiari osasun-zerbitzua ahalbidetzeaz, denda bat jartzeko egin beharreko urratsez, eta abar.

Lege bat egitea zeregin konplexua da. Horregatik, prozedura bat jarraitzen da, bermatzen duena parlamentariak legea aztertuko dutela eta, onetsi eta praktikan jarri aurretik, haren ondorioak aintzat hartuko direla:

1. Ekimena

· Proiektua:

Nafarroako Gobernuak lege bat egitea proposatzen du; horretarako, proiektu bat aurkezten du

· proposamena:

Parlamentariak, parlamentu-taldeak, Nafarroako udalek edo herritarrek (gutxienez ere, zazpi milak) lege bat egin nahi badute, foru lege proposamen bat aurkezten dute.

2. Nafarroako Parlamentuan sartzea

Proiektua edo proposamena Nafarroako Parlamentuan aurkezten da. Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak aztertu egiten dute, eta erabakitzen dute aurrera jarraituko duen ala ez. Zuzenketak aurkezteko epe bat zabaltzen da. Osoko zuzenketa bat baldin badago, Osoko Bilkuran eztabaidatzen da, eta osoko zuzenketa onesten ez bada, testua batzordera joaten da.

3. Batzordea

Proiektua edo proposamena Parlamentuko batzorde batera pasatzen da: hezkuntzakoa, osasunekoa... Parlamentu-talde guztiak artikuluz artikuluki aztertzen dute etorkizuneko legea izanen dena: hobekuntzak proposatzen dituzte, aldaketak adosten dituzte...

4. Osoko Bilkura

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak Osoko Bilkura baterako deia egiten du. Osoko Bilkura horretan, foru lege proiektu edo proposamena berriro eztabaidatuko da.

5. Aldarrikatzea/Argitaratzea

Foru legeak indarra hartzen du Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratu ondoren. Horrela, herritar guztiak dute modua legea ezagutu eta betetzeko.



[Goian] **NAOren web orria**  
[Ezkerrean] **Antzinako paperezko NAOren lehen orrialdea**

Nafarroako Parlamentuak onetsitako foru lege guztiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen dira. NAOren paperezko aleak 2009ko uztailera arte bakarrik dago kaleratzen segitzeko asmoa; hortik aurrera, soilik on line bertsioa, aspalditik abian dagoena, egonen da. NAO guztiak kontsultatu ahal izateko web orria honakoa da: [http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Bestalde](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Bestalde), EAO kontsultatzeko, zoaz beste helbide honetara: <http://www.boe.es/>



## 10. Ariketak

1. Nafarroako Parlamentuan lege bat egiteko prozesuari buruzko eskema hau kopia eta osatu:

1. Ekimena

· Proiektua:

· Proposamena:

2. Nafarroako Parlamentuan sartzea:

3. Batzordea:

4. Osoko Bilkura:

5. Aldarrikatzea/Argitaratzea:

---

2. Talde txikian eztabaidatu eta jaso idatziz zergatik foru lege bat ez ezagutzea ez den arrazoia hura ez betetzeko. Gero, azaldu zuen arrazoiak gelako gainerako taldeen aurrean.

---

3. Laburpen modura, presta ezazue, banaka, idazlan labur bat, eta bertan eman eta azaldu gutxienez ere hiru argudio zera justifikatzen dutenak, lege bat ez ezagutzeak ez duela, oro har, hura betetzetik salbuesten. Adibide bat aipatu.

Nafarroako Parlamentuak betetzen duen beste eginkizun bat da Nafarroako Gobernuak bere botereaz egiten duen erabilera kontrolatzea. Kontrol hau nagusiki bi modutan egiten du:

- Gobernuko lehendakaria hautatuz eta, kasua bada, kargutik kenduz.
- Galderak eta mozioak aurkeztuz, eta agerraldiak eskatuz, non gobernukideak behartuta baitaude erantzunak eta beren ekintzei buruzko azalpenak ematera.

## 11. Nork kontrolatzen du boterea Nafarroako Parlamentuan?

### 1. Gobernuko lehendakaria hautatzea.

Hauteskundeak egin eta geroxeago, foru parlamentariak Nafarroako Gobernuko lehendakaria hautatzen dute. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak bilerak egiten ditu parlamentu-taldeetako eledunekin eta alderdi politikoetako ordezkariekin, haietako bakoitzak informa diezaion gobernua osatzeko zer aukera dituen. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak uste duenean norbaitek behar adina boto dauzkala, Osoko Bilkurarako deia egiten du. Osoko Bilkura horretan, Gobernuko lehendakaritzarako hautagaiak programa bat aurkezten du; alegia, hautatua izanez gero aurrera eramanez dituen neurrien multzo bat. Parlamentu-talde guztiek eztabaida egiten dute hautagaiak proposaturikoari buruz, eta nolako botoa emanen duten jakinarazten dute. Azkenean, bozketa egiten da. Hautagaiak gehiengo osoa lortzen badu (alegia, gutxienez ere 50 parlamentarietako 26k haren aldeko botoa ematea), lehendakari izendatua izanen da. Ez badu halakorik lortzen, bigarren bozketa bat egingen da, aurreko bozketa egin eta hogeita lau ordu geroago, eta hautagaia hautatutzat joko da bigarren bozketa horretan gehiengo soilak lortuz gero. Hilabete igaro ondoren inork ez badu lortu beharrezkoa den gehiengoa, hauteskundeak errepikatu egingen dira eta Nafarroako Parlamentu berri bat hautatuko da.

### 2. Galderak, mozioak, kontrolerako eztabaidak...

Bai batzordeetan, non ordezkatuta baitaude parlamentu-talde guztiak, bai Osoko Bilkuran, non esertzen baitira parlamentari guztiak, Gobernua behartuta dago parlamentariak aurkezten dituzten galderari edo jabeldurei erantzutera. Oro har, batzordeetan aztertzen dira batzorde horien espezializazioa diren gaiak: Etxebizitza; Osasuna; Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak; Hezkuntza, eta abar. Osoko Bilkuran ere galderak aurkezten zaizkio Gobernuari. Erantzuteaz arduratzen dira kontseilariak edo Gobernuko lehendakaria bera. Gainera, urtero, Foru Komunitatearen egoerari buruzko Osoko Bilkura bat egiten da, eta bertan Gobernuko lehendakariak azken urtean egin denari buruzko laburpen bat aurkeztu eta hurrengorako proposatzen dituen ekintzarik garrantzitsuenak aipatzen ditu. Parlamentu-taldeetako eledunek beren kritika nahiz babesa eskaintzen diete azalpen horiei, askotariko argudioak erabiliz.

Laburbildurik esateko, Nafarroako Gobernuak autonomia erkidegoko politika ezarri eta Administrazioa zuzentzen du. Nafarroako Parlamentuak kontrolatu egiten du Gobernuak egiten duen lana, eta, behar izanez gero, Gobernuko lehendakaria alda dezake.



## Nafarroako Gobernuaren eraketa

18 urtez gorako nafarrek



alderdi edo koalizioei; besteak beste:  
UPN, GEROA BAI, EH BILDU,  
PODEMOS-AHAL DUGU, PSN-PSOE, IE, PP



Nafarroako Parlamentua



Gobernuko lehendakaria



Nafarroako Gobernua

**HAUTATZEN DU**





**11. Ariketak**

1. Bila itzazu [www.navarra.es/home\\_eu](http://www.navarra.es/home_eu) webgunean, «Nafarroako Gobernua» izeneko atalean, Nafarroako Gobernuko Departamentuen izenak.

- 
2. Defini itzazu hitz hauek, hiztegi baten laguntzaz:

- Gobernuko lehendakaria:
- Gobernu-programa:
- Gehiengo osoa:
- Gehiengo soila:
- Zentsura-mozioa:

- 
3. Talde txikian bilduta, pentsa ezazue zergatik den beharrezkoa Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren jarduna kontrolatzea. Aipa itzazue hiru arrazoi.

- 
4. Iker ezazu zer izen duten, gutxienez ere, Espainiako bost erkidegotako lehendakariak eta Espainiako Gobernuko lehendakariak.

# 12. Sintesia

Zer ikasi dut Nafarroako Parlamentuari buruz?


- Hiztegiko hitzen sintesia: Ikasgela Birtualeko «Parliztegia» kontsultatu.
- Itxiera-mapa bat egin.



**13. Ebaluazioa.  
Koebaluazioa**

1. Osa ezazu eskema hau, Nafarroako Parlamentuan lege bat nola egiten den azaltzen duena.

- 1. Ekimena
  - Proiektua:
  - Proposamena:
- 2. Nafarroako Parlamentuan sartzea:
- 3. Batzordea:
- 4. Osoko Bilkura:
- 5. Aldarrikatzea/Argitaratzea:

Ebaluazioa  


2. Osatu taula hau:

NAFARROAKO PARLAMENTUA	
NORK HAUTATZEN DU	
ZENBATEAN BEHIN	
NOLA HAUTATZEN DA	

3. Galdera laburrak:

- Nafarroako Parlamentuko parlamentarien kopurua:
- Aipa itzazu lau alderdi edo koalizio Nafarroako Parlamentuan parlamentu-taldea osatu dutenak:
- Nork onesten ditu Nafarroako Gobernuaren aurrekontuak?
- Nork hautatzen ditu Nafarroako Gobernuko kontseilariak?
- Nafarroako Gobernuko lehendakariaren izena aipa ezazu:

4. Honako hitz hauen esanahia azaldu:

- Foru hauteskundeak:
- Diktadura:
- Gehiengo soila:
- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkura:

1. Nola baloratzen ditugu Nafarroako Parlamentuari buruz eginiko ikerketa eta Ikasgela Birtualaren erabilera? (Ikasgelako taldeak egin beharreko ariketa)

**Koebaluazioa**



- Zer helburu lortu ditugu?
- Zein zailtasun topatu ditugu?
- Zein izan dira gure indarguneak eta lan honetako onena?
- Zein proposamen eta iradokizun egin ditzakegu lan hau hobetzeko?







PARLAMENTO DE NAVARRA  
NAFARROAKO PARLAMENTUA